

## 2017KO KARTEL-LEHIAKETAREN OINARRIAK

*“Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Prebentzio Kanpaina Komunitarioa”*

**ANTOLATZAILEA:** Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Laguntzaileak: Antsoaingo HARROBI Gaztelekua eta Berriozarko Gaztegunea.

**Parte-hartzaileak:** Antsoaingo eta Berriozarko gazteak, 16 eta 30 urte artekoak. Pertsona edo talde bakoitzak ez du kartel bat baino gehiago aurkeztuko.

**Gaia:** Droga-mendekotasunei buruzko udalen arteko proiektuaren helburuekin lotutako irudia aurkeztuko da, gaztelaniz eta euskaraz idatzitako mezuak lagunduta.

1. Substantziak kontsumitzen hasteko adina atzeratu.
2. Kontsumoen nagusitasuna murriztu.
3. Arazoak sortzen dituzten sustantzien erabilerak murriztu.
4. Sustantzien kontsumoak dakartzan kalteak eta ondorio txarrak murriztu.

**Formatua:** Kartelek izenburua izanen dute eta kolorezkoak eta Din A3 tamainakoak izanen dira. Paper formatuan aurkeztuko dira eta ez dute izanen egilea ezagutzera eman dezkeen daturik.

**Noiz eta non aurkeztu:** Antsoaingo Gaztegunean (HARROBI, Ezkaba k. 4, behea, Antsoain) eta Berriozarko Gaztegunean (Oianondoa k. 1, behea, Berriozar), 17:00etatik 20:00etara, 2017ko ekainaren 19tik 29ra. Halaber, data horietan, aurkeztutako kartelen formatu digitala (PDF edo JPF, derrigorrez) bidali beharko da helbide hauetara [casajuventud@ansoain.es](mailto:casajuventud@ansoain.es) (Iana Antsoainen aurkeztu bada) edo [ikariari@hotmail.com](mailto:ikariari@hotmail.com) (Iana Berriozarren aurkeztu bada).

**Nola aurkeztu:** Kartelak kartazal itxi batean aurkeztuko dira. Bertan idatziko dira kartelaren titulua eta “Prebentziozko Kanpainaren Kartel-Lehiaketa”. Barnean DIN A3 kartela sartuko da; baita pertsona edo talde parte-hartzailearen datu pertsonalak izanen dituen bigarren gutun-azala ere (izen-abizenak, adina, helbidea, posta helbide elektronikoa eta telefonoa). Gutun-azalean kartelaren titulua idatziko da. Titulua gaztelaniz eta euskaraz aurkeztuko da. Hizkuntza bakar batean aurkeztu bada, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak tituluaren itzulpena egiteko eskubidea izanen du.

### **Lehiaketako parte-hartzaileek betebeharrekoa:**

Kartelak argitaratugabeak izanen dira eta pertsona edo talde egilea parte-hartzailea izanen da ez beste inor. Kartelak beste lehiaketa batean saritu gabeak izanen dira. Epaimahaiak sariak erabaki eta gero, goian aipatutako betebeharrak norbaitek ez betetzea gertatuko balitz, arau-hauslea lehiaketatik kanpo geratuko da deblauki.

## **Kartelen erakusketa eta jabetza:**

Mankomunitateak lehiaketan parte hartutako kartelak erabili ahalko ditu bere esparruko herrietako prebentziozko kanpainetan eta erakutsi ahalko ditu udal guneetan ildo bereko lanetan.

Parte hartutako kartelak Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearenak izanen dira, baita horien gaineko eskubide guztiak ere.

**Epaimahaia:** Epaimahaiaren egonen dira Antsoain eta Berriozarko Gazteria Arloko zinegotziak (edo horiek funtzio honetarako esku emandako pertsonak), Gizarte Zerbitzuen mankomunitateburua, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bi teknikari eta Antsoaingo eta Berriozarko Gazteguneeetako hezitzaile bana.

**Epaimahaiaren epaia:** 2017ko abuztuaren 3an zabalduko da eta apelaezina izanen da. Emaizta hedabideetan argitaratuko da. Saridunei telefonoz jakinaraziko zaie. Kartelak baloratzeko irizpide orokorrak:

1. Originaltasuna: % 30
2. Alderdi teknikoak: kalitatea eta konposizioa: % 25
3. Gaiak / Edukia: % 45

Epaimahaiak eskubidea izanen du kartelak lehiaketatik kanpo uzteko, baldin eta irudi edo eduki sexistak, xenofobo edo homofoboak badituzte edo gizatalde jakin baten sentzibilitatea iraintzen badute. Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikarien eskumena izanen da kartel irabazlearen mezu nagusia aldatzea edo egokitzea, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen prebentziozko kanpainaren helburuarekin bat ez datorrela uste badute. Epaimahaiak aho batez erabakiz gero, lehiaketa saririk gabe geratzen ahal da.

## **Sariak:**

Lehiaketako kartel irabazleak 100 euroko saria jasoko du (kirol materiala edo material didaktikoa erosteko balea tokiko dendetan).

Lehiaketako bigarren sariak 50 euroko balea jasoko du (kirol materiala edo material didaktikoa erosteko balea tokiko dendetan).

**Sari banaketa:** Sariak banatuko dira irabazlearen herriko jaien hasierako egunean. Antolatzaileek egileen baimena daukate kartelak arauetan esandako uneetan erakusteko. Arau hauetan zehaztu gabeko gaiak epaimahaiak erabakiko ditu. Lehiaketan parte hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakiak onartzea dakar.

Lehiaketaren epaia erabaki eta bi hilabetetara ulertuko da jaso gabeko lanak ez direla geroago jasoko; beraz, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak nahi bezala erabiliko ditu eta egileek ez dute kexen edo kalte-ordainen gaineko inolako eskubiderik izanen. Kartela jasotzeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin harremanetan jarri beharko da: Kaleberri 12, behea / Tel: 948300007.